

Ezkongaiya librean  
arkitzen da oso,  
ez dauka ezkontubak  
ainbat estreposo;  
famiyaren kargik  
eztu bear jaso,  
bakarra da, ta bizi  
liteke eroso.

Bañan gaztetan bizi  
nai dubenak lasa,  
zartzean dauka beste  
moduzko jolasa;  
bakar gelditurikan  
ez danean gauza;  
bizimodu triste ta  
charbat oi du pasa.

Indarrak ezkazituta  
danian debiltzen,  
gauza sobratu baten  
gizan da ibiltzen;  
tristurak bear baña  
lenago du illtzen,  
eta nork negar egin  
etzaiyo gelditzen.

Mundu au negarrezko  
zelai bat izanik,  
ezta bizi modurik  
penarik eztanik;  
alaz guziaz jira  
begiai emanik,  
ezkontubak obeki  
arkitzen ditut nik.

Orra geren aurrean  
naiko ikuskera,  
argi biderik gabe  
arkitzen ezkera;  
orain iñork badauka  
ezkontzeco era,  
zer egin berak bere  
kontubak atera.

RAMON ARTOLA.— Junio 79.


### III. garren SOMAKETA

Nere *bata* bi bider  
daukat nik izentzat;  
nere *biya* ta *bata*  
da nere lagun bat.  
Nere *iruba* ta *biya*  
da ogi ordekoa,  
baserritarrak maizcho  
duben jatekoa.

Lanian nekatuta  
eiten da ondo *biya*,  
gauza chit bearra ta  
osasungarriya;  
eta gauz borobilcho  
bat da nere *dana*,  
aidian ego gabe  
maiz ibiltzen *dana*.

J. M.

Askantza urrengo lumero edo liburuchoan.



## SECCION AMENA.

### ASTOA BASA ASTOAGOKO ASTAZAI BAT

Errotari mutill bat astocho batekin  
 Zaku karreo beti umore onakin  
 Bordaz borda ibilli oi zan iriñakin,  
 Ezpañean zuela pipa belarrakin.  
 Eurite izugarri baten ondorean  
 Arkitu zan ibai bat pasa bearrean:  
 Jarririk asto eta zakurren gañean,  
 Ajika dio jarre! irago gaitean.  
 Astoak bere baitan,—ez nauk iragoko,  
 Len ere badiat nik kargarikan asko:—  
 —¡Arre! bizkarra diat bestela autsiko:—  
 —Jo nazak jo, nai badek, eu aiz aspertuko.—  
 —¡¡A..r..r..e!! ¡ala jainkoa!—¡¡Jijai...jijai...jijai!!!—  
 —¡Arrayia! gaurdaño pasa gaituk nonai,  
 Eta ¿zer, oraiñ ez dek iñondik ere nai?  
 Ago, ago pisca bat, konponduko aut, bai.—  
 Artzen du bizkarrean astoa, nai ta ez,  
 Eta beste aldera pasatzen, esanez:  
 «*Ni baño geiago aiz setas ta jakitez,  
 Baña ez aiz izango sekula indarrez.*»

CLAUDIO OTAEGUI.

### I<sup>ko</sup> SOMAKETA.

Abecean *bata*,  
*Iruba* musikan ,  
 Biya ta *lenengoa*  
 C hit maiz chiminiyan.  
 Nere *bata* ta *laba*  
 Daukazu eskuban,  
 Neurri chit ezaguna  
 Lengo denboretan

*Bata*, *biya* ta *laba*  
 Bizartu adarduna  
 Nere *iruba* ta *lauban*  
 Pozik ibilli oi da,  
 Eta neure *guzi*ya  
 Da sorgin kontuba,  
 Euskaldun itz garbiya  
 Erderak ostuba.

J. M.

**SECCION AMENA.**

II<sup>garren</sup> SOMAKETA.

*Bat-bi, bat-bi, esan zion  
 atzo semeari  
 ama batek; bat-bi,  
 aker aundiori;  
 ¿ez al dek aitzen, Pello?  
 alago bi-iruba?  
 zintzotukoat azkar  
 kaikutzar lotuba.  
 Eta nola ama ura,  
 izanik andrea,  
 zan oso bat-iruba,*


itzuli semea  
 presaka ta korrika  
 irten zan kalea.  
 . . . . .  
 . . . . .  
 ¿Ez aldakizu oraindik  
 nere irakurlea,  
 zer dan somaket onen  
*guziya edo dena?*  
 Da, bada...¿esango al dizut?..  
*Ill baten izena*

Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.

**I<sup>ko</sup> SOMAKETAREN ASKANTZA:**

**AQUELARRA.**

**III<sup>garren</sup> MUTADI EDO ISITZA.**



Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.